

“Berorrek nahi baduzu egingo yau”

Hitanoa hobeto erabiltzeko ikastaroa egin dute Orion (Gipuzkoa) Udalak antolatuta. Ez da hitanoaren inguruko ikastaro asko antolatzen eta halako gehienetan hikako erabilera bultzatzea izaten dute helburu. Orion, berriz, hitanoaren jardun egokia bultzatzea izan dute xede.

ITSASO IBARRA

ORIOITARREN ARTEAN hika jardutea zabaldua dago. Gizonezkoek, esaterako, egoera informaletan eta lagun artean ia denek erabiltzen dute, emakumezkoen artean berriz gutxi dira egiten dutenak. Iñaki Iturain, ikastaroaren irakasleak azaldu duenez, “gizonezkoen artean, zazpi urtetik edo hasita, ia denek erabiltzen dute, emakumeek berriz gutxi, galtzen ari da. Emakume heldu gehienek badakite, baina gutxi erabiltzen dute, gazteen artean ere badira batzuk”. Batez ere kalean erabiltzen da, lagun artean; familia barruan, berriz, aitek semei hika hitz egiten diete, “ohituraren arabera, mutil jaio berriari zuka hitz egiten zaio, eta behin koxkortzen denetik aurrera hika, baina neskei beti zuka, galdu egin da”.

Hitanoak izan du zenbait herritan, hizkera itsusiaren fama, baina Orion ez da hala gertatu: “Familia batzuetan badu fama txar hori, eta susmoa dut eskualde batzuetan ere hala gertatu dela, baina Orion orokorrean ez da joera hori nagusitu. Zukako jardunak balio duen moduan, hikakoak ere bai. Bakoitza, bere tokian eta bere esparruan, egokitasun kontua da”.

Lehen, hika norekin eta zein egoeratan erabil zitekeen gauza jakina



Orion hika ikastaroan parte hartu duten ikasleak eta Iñaki Iturain irakaslea (ezkerretik laugarrena).

bazen ere, orain hikaren mugak lausotu egin dira, eta erabilera-arauak ez daude oso garbi, Iñaki Iturainen ustez. Gazte batek apaizari esandakoa ekarri du gogora: “Berorrek nahi baduzu egingo yau”. Gizarte ohituraren eragina ere aipatu du: “Hitanoa

maila berekoen artean edo goitik beherako harremanetan erabiltzen da, behetik gora ezin da erabili. Ez da lege gramatikala, baina bai gizarteak bere egin duen ohitura, belaunaldiz belaunaldi jarraitu duena. Gauza bera

Babeslea: Bergarako Udala



Bergarako Udala,
euskarazko komunikabideen alde

Erabilera telebistan

Erabilerearen maila jaisten ari bada ere, zenbait hedabidetan hika sartu izanak hizketa modu horri eusteko bermea ematen diola azaldu du Iñaki Iturainek: “Garai batean hikak telebistan atek itxiak zituen eta orain, Euskal Telebistan, esaterako, izan du sarbidea: Andoni Aizpuru, Xabier Eguzkitzek eta Joxean Tolosak, edota Goenkaleko zenbait pertsonaiak erabiltzen dute, eta haien ereduak ona da. Hedabideetan erabiltzeak hikari normaltasuna ematen dio, eta, euskara bizirik dagoen herrietan, hikari eutsiko zaio. Gainera, badira hikarekin kezkatuta ikastaroak antolatzen hasi diren udalak ere”.

gertatzen zen berorikarekin, beti behetik gora egiten zen, gizarte-maila gorenekoekin, alkatea, apaiza, medikua, aitona..., hitanoa alderantziz, behe mailakoekin. Hika behetik gorako harremanean egitea errespetu falta da, baina oraingo nahasketa honetan batzuek egiten dute”. Nahas-mahas horren adibide herriko elkarte batena aipatu du Iturainek: “Ordezkariek jende aurrean hitz egin behar eta hika egiten hasi zen. Hori ezin da egin, are gutxiago entzuleen artean gizon eta emakumeak daudela kontuan harturik. Hikak batak besteari egiteko balio du, maila berekoak direnean, eta multzo bati ezin zaio egin”.

Toka eta noka

Hitanoa erabiltzen bada ere, zenbait alorretan ez da erabilera zuzena egiten. Hala, mutil gazteak neskei hitz egiterakoan toka aritzen dira “ekarri ezak” esanez, mutilen arteko hika mota, noka erabili beharrean, neskei zuzenduriko hika mota: “Noka asko jaitsi da, ia galtzear dago”.

Ez da hori egiten duten erabilera oker bakarrik ordea; hika menpeko esaldietan ere erabiltzen baitute Orion: “Hitanoaren hiper erabilera dago; hau da, hika menpeko esaldietan erabiltzen dute eta hori ezin da; aditza, esaldiaren barruan, nagusia denean soilik erabil daiteke hika. Esaterako, *joaten gaitukenean, etorri naukelako, ikusi diagun pelikulan...* eta

“Hika behetik gorako harremanetan egitea errespetu falta da, baina oraingo nahasketa honetan batzuek egiten dute”

Iñaki Iturain

horrelakoak maiz entzuten dira. Gazte gehien artean hika bizi-bizi dabil baina modu horretan erabiltzen dute. Hitanoak bere mugak ditu bere morfologian, bere baitan, ezin da erabili nonahi, noiznahi, nolana ere nornahirekin”.

Noka eta tokaren arteko nahasketaren eta hitanoaren hiper erabilera oker horren kezka zutenentzat antolatzen zuten ikastaroa Orioko Udalak Euskara Biziberritzeko planaren barruan. Joera desegokiak zuzentzea izan da asmoa. Lau asteko iraupena izan zuen, eta bertan akatsen inguruko gogoeta egitea izan zuten helburu, hortik aurrera norbera gai izan dadin erabilera zuzena egiteko. Irakaslearen aburuz, ez da lan erraza: “Gazteen artean erabilera okerra nagusitu denean, horri buelta ematea zaila da eta ez dakit lortuko den ere. Gainera, susmoa dut gaizki hitz egite hori ez ote den gazteek beren buruari ezarritako marka bat, belaunaldiari ezaugarria ematen diona. Nik uste dut eskoletan eta euskaltegietan gogoeta egin behar dela gai honen inguruan; segu-

“Familia batzuetan badu fama txar hori, eta susmoa dut eskualde batzuetan ere hala gertatu dela, baina Orion orokorrean ez da joera hori nagusitu. Zukako jardunak balio duen moduan, hikakoak ere bai. Bakoitza bere tokian eta bere esparruan, egokitasun kontua da”

Iñaki Iturain



Batez ere gizonezkoek erabiltzen dute hitanoa Orion, emakumeek askoz gutxiago darabilte.

ru nago erabilera hori bere onera ekartzea erabakiz gero, okerra zuzentzeko bitartekoak jarrita, gaia bideratuko luketela”.

Euskaldun berriak

Euskara ikasten ari direnek hika erabiltzen ote duten galdetuta, zera dio Iñaki Iturainek: “Oso gutxi ausartzen dira, nekez. Garai batean, euskaltegirik ez zen garaian, euskara modu natural integratuan ikasten zen garaian, kaleko jarduna ia %100 euskara zenean, batzuk itsasoan-eta hasten ziren lanean eta era normalean ikasten zuten, hizkuntzaren zera guztiak ikasten zituzten, hitanoa barne. Esaterako, bazen Cadizen jaio eta Oriora umetan etorritako gizon bat. Hark hika eta zuka primeran hitz egiten zuen eta sekula ez zituen horiek eskolan ikasi”.

Iturainek dioenez, “hikako jarduna euskaltegietan eta ikastoletan ez da batere landu, agian, irakasleek ez dutelako garbi zer eta nola irakatsi behar den. Bestetik, ahazkotasuna bera ere bazterturik egon da; hitz egin duena irakaslea izan da beti, eta haurrei ia ez zaie hitz egiteko aukerarik eman. Hikako formak aberastasun bat ematen dio hizkuntzari eta pozgarria litzateke sumatzea eskoletan sumatu dutela horren beharra”.